

EUSKADIKO ALBISTEAK

113 zk. - 2008



Legebiltzarreko Osoko Bilkuraren aurrean, Kontsultaren Legea defendatu zuen Lehendakariak eta adierazi zuen hasitako bideak "ez duela atzera bueltarik".

AURKIBIDEA

▼ HOGEITA HAMAR EGUN EUSKADIN

Ibarretzek herritarren galderei erantzun zien, Osoko Bilkura baino egun batzuk lehenago
2. orrialdea

▼ EZAGUTU EUSKADI

Eusko Jaurlaritzak eta Aldundiek ekonomia suspertzeko akordioa sinatu dute.
3. orrialdea

▼ KONTUAN HARTZEKOAK

Zaragozako Expo-ak Euskadiren Eguna ospatu zuen.
Euskarak gero eta hitzun gehiago ditu.
Ez zen Nabarra Boua.
4. orrialdea

Eusko Legebiltzarrak ontzat eman du Gobernuak aurkeztutako Bakearen eta Akordioaren aldeko Legea

Lehendakariak adierazi duenez, herrien arteko elkarbizitzaren oinarria "atxikimendu askea da, ez inposizioa"

Osoko Bilkurari esan dio: "zatiketa ez du eragiten galdera egiten duenak, kontsulta debekatzen duenak baizik"

Pasa den ekainaren 27an onetsi zuen Eusko Legebiltzarrak Gobernuak aurkeztutako Kontsultaren Legea. Izan ere, Gobernuaren nahia da urriaren 25ean euskal gizarteak bakea eta normalizazio politikoa lortzeko negoziatuzio-prozesuaz duen iritzia zuzen-zuzenean adieraztea.

Hiruko gobernuak onartutako testua defendatzeko ardurak Ibarretxe Lehendakariak berak izan zuen, eta adierazi zuenez, "hunkituta" eta "harro" zegoen, egun "historiko" batean, eta lehenengoz, euskal herritarrei zuzeneko kontsulta planteatzen zien ekimena aurkezteko aukera zuelako, kontsultak "XXI. mendean euskal gizartearen erabakitze eskubidea gauzatzen duela". "Gaurko eguna bihotzean gordeko dut betiko" –esan zuen.

Euskadiko Ganberaren Osoko Bilkuran,

Ibarretzek esan zuen herrien arteko elkarbizitzaren oinarria "atxikimendu askea dela, ez inposizioa" eta beste behin ere adierazi zuen herri-kontsultek, "herritarrek zuzenean parte hartzeko formula direnez, demokrazia sendotzen dutela." "Zatiketa ez du eragiten galdera egiten duenak, kontsulta debekatzen duenak baizik" esan zuen ozen eta argi.

10.000 kontsulta AEBn

Horrez gain, Alderdi Sozialistako eta Alderdi Popularreko kide nabarmen batzuen jarrera ere kritikatu zuen Lehendakariak, kontsulta "kosta ahala kosta" geldiarazteko mehatxua egin dutelako, eta galdetu zuen "bere burua halakotzat duen zein demokraziak ukatzen dion herriari kontsulta egitea".

Puntu horretan, Euskadiko legebiltzarkideei gogorarazi nahi izan zien herri-kontsultak normalizat hartzen eta erabiltzen dituztela herritarren partehartzea gorpuzteko bai Europan bai munduan zehar ere, eta Suitza, Baviera, Austria eta Ameriketako Estatu Batuak jarri zituen adibide. Ameriketako Estatu Batuetan, hain justu ere, 10.000 kontsulta baino gehiago izan ziren 2003. urtean. 2001. urtean Europako Kontseiluko Ministroen Batzardeak 44 estatu kideri-besteak beste, Espainiari emateko onartu zuen gomendioa ere aipatu zuen gainera Lehendakariak. Gomen-dio haren arabera, "gai jakin batean zuzeneko interes konkretua daukaten partehartzea bultzatu nahi bada, herri-kontsulta formula ezin hobea da".

(1. orritik)

Herri-kontsultari bermea ematen dioten oinarri juridikoei buruzko polemika dela-eta, Gasteizko Gobernuak aurkeztutako lege-proiektua legezkoa dela aldarrikatu zuen Lehendakariak, herri-kontsulta ez loteslea delako, eta ez erreferenduma. Gainera, gogorazi nahi izan zuen "halako beste kontsulta batzuk onetsita daudela beste Autonomia Estatutu batzuetan, Konstituzioa aldatu beharrik gabe".

Euskaldunen akordioa errespetatu

Hitzaldiaren beste une batean, Ibarretzek azpimarratu zuen euskal gizartearen blokeo politikoaz nekatuta dagoela, eta "ETAren indarkeriaz nazkatuta" eta, horrexegatik, "esku-

bidea daukala ozen hitz egin eta guztxioi elkarrizketa eta konponbidea exijitzeko".

Hori dela-eta, kontsultan planteatzen diren bi galderen helburua da gizarteak indarkeriaren kontrako konpromiso etikoa berretsi dezala, Ajuria Eneako akordioan zein Diputatuen Kongresuan 2005eko maiatzean hartutako konpromisoen antzekoa, eta alderdi guztiek erabakitze eskubideari buruzko akordio demokratikoa lor dezatela, Estatuak errespetatzekotan, "orain arte ez bezala". "Elkarrekin bizi behar dugun erabakitze aukera izan behar dugu, erabakitze askatasunik ez badaukagu, elkarbizitza ez baita askea izango, inposatua baizik", gaineratu zuen.

Gogorazi zuen, halaber, Espainiako gobernuko presidentek uko egin diola berarekin hitz egin eta negozi-

tzeari, Loiolako bake-prozesuan ETA-rekin eta Batasunarekin negoziatzeko prest egon zen gai horien inguruan.

Azkenik, Lehendakariak honakoa azpimarratu nahi izan zuen: "gaurko eztabaida alde batera utzita, eta urriaren 25ean gertatuko denaz haratago, Euskal Herriak bere etorkizunaz erabakitze atea zabalik dago". Erabat sinistuta dago hasitako bide honek "ez duela atzera bueltarik". "Atea zabalik dago betiko, eta inork ezingo du itxi, oztopo juridiko, politiko eta bestelako atzerapenak jartzen saiatuta ere. Ez du inork itxiko" adierazi zuen sendo.

Eusko Legebiltzarrak Kontsulta Legea onesten duenean, ohiko izapideari jarraitu beharko dio ondoren, aplikatu arte. Espainiako Gobernuak eta Alderdi Popularrak, nolana, dagoeneko iragarri dute Legea errekurritu egingo dutela Konstituzio Auzitegian. Errekurtsoa onartuko balitz, Legea indargabetzeko aukera izango luke Auzitegiak, gehienez ere bost hilabetez.

(Informazio gehiago, hemen: www.euskadi.net)



Lehendakaria (irudiaren ezkerrean), herritarren galderak entzuten.

Legebiltzarreko Osoko Bilkura baino egun batzuk lehenago

Ibarretzek herritarren galderei erantzun zien

Kontsulta Legea eztabaidatzeko Osoko Bilkura egin baino egun batzuk lehenago, zenbait herritarrekin bildu zen Lehendakaria Donostiako Kurusaan, kontsulta zela-eta egin nahi zizkioten galderei aurrez aurre erantzuteko. Horrez gain, abagune ezin hobea izan zuen Ibarretzek Eusko Jaurlaritzak abian jarritako Konpondu.net partehartze-ekimenaren bidez, euskal herritarrek Interneten adierazi dituzten komentario eta galderen berri izateko.

azken egunetan sarean jarritako galderei erantzun zien.

Hala, Ibarretzek ukatu egin zuen Legeak ez duela argi eta garbi ETAren indarkeria errefusatzeko; hala leporatu baitio Alderdi Sozialistak, eta gaineratu zuen kontsultako lehenengo galderak "ETA bere lekuan jartzea" daukala helburu, eta esaten diola "pertsiana jaitsi behar duela betiko".

Bere proposamenaren egokitasun juridikoari buruzko galdera bati erantzunez, Ibarretzek ukatu egin zuen kontsulta legez kontrakoa denik, eta gaur egungo legegida aldatzeko prest agertu zen "beharrezkoa izanez gero". Gainera, adierazi zuen gobernu zentralak aspaldidanik iragartzen dituen errekurtsuak "Estatuaren ahultasunaren adibide direla" eta demokraziarekiko "errespetu falta".

Bere etorkizun politikoari buruz, Lehendakariak esan zuen euskal gizarteak ez badu ekimena ontzat ematen, etxera joango dela "lasai asko eta dramatismoz gabe".

Seiehun lagun baino gehiago zen han, ia denak Konpondu.net antolatutako foroetako partehartzaileak, eta pozik agertu zen Lehendakaria, ikusita herritarrek heldutasunez eta soseguz hartu dutelako kontsulta, eta "politikoez ez bezala", "normaltasunez" eta "dramatismoz gabe" ikusten dutelako haiei kontsulta egitea.

Egun batzuk barru Legebiltzarrean eztabaidatzeko zen Legearen edukia azaltzeari ekin zion Lehendakariak; zalantzak argitu zituen eta herritarrek

Hurrengo lau urteetan inbertsio publikoak suspertzeko akordioa sinatu dute Eusko Jaurlaritzak eta Aldundiek

13.000 milioi euro euskal ekonomia aktibatzen eta 20.000 lanpostu sortzeko

Eusko Jaurlaritzak eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Aldundiek txoke-plan bat jarri dute abian, euskal ekonomia dinamizatzeko, enplegua sortzeko eta ekoizpena hobetzeko. Horretarako, Ibarretxe Lehendakariak eta Diputatu Nagusiek erakundeen arteko akordioa sinatu zuten Ajuria Enean, 13.000 milioi eurokoa, inbertsio publikoak sustatzeko hurrengo lau urteetan. Gainera, akordio horren baitan jasotako inbertsioek 20.000 lanpostu eragingo dituzte, horietatik 14.000 zuzenekoak.

Neurri honen bitartez, euskal erakundeek gaur egun munduan nagusitzen ari den “moteltze” ekonomikoaren testuinguruari aurre hartzeko helburua daukate, aktibitatea eta hazkunde ekonomikoaren erritmoari eusteko neurriak bultzatuz. Horretarako, martxan dauden proiektuak bizkortu egingo dira eta beste berri batzuk ere abiaraziko dira.

Adibidez, Donostiako “topoaren” obrak, Bilboko Metroaren 2 eta 3 lineak, Arabako Errepide Plan Integrala, Altzairuaren Teknologiararen Bikaintasun Zentroa, Bizkaiko Badietako Birgasifikazio Planta handitzea, lau ospitale eraikitzea eta zenbait ibai bideratzea, horiek guztiak jasoko dute akordio honen eragina. Ez, ordea, Y euskal trenbide-sareak, finantzazio-eskema berezia daukalako proiektu horrek.

Konfiantza eta segurtasuna aurrerantzean

Ajuria Enea jauregian akordioa sinatu ondoren, Lehendakariak adierazi zuen akordioa “lidergo-ekimena” dela gure herrialdean, ikuspegi ekonomikotik nahiz sozialetik, eta gaineratu zuen gaur egungo lorpen hori estu lotuta dagoela azkeneko urteotan euskal era-



Etxeko lanak garaiz eginda

Ahal duen guztietan, Lehendakariak gogorarazten du gauzak ondo doazen garaian “etxeko lanak egin izanari” esker, gaur egun desazelerazioaren eraginak ez direla hain nabarmenak Euskadin.

Izan ere, % 3,1 hazi zen Euskadiko ekonomia urteko lehenengo hiruhilekoan, hau da, inguruko gainerako ekonomietan baino gehiago. Iragarpenek adierazten dutenez, hazkundea % 2,5ekoa izango da hurrengo hilabeteetan. Gainera, Eurostatek argitaratu datuaren arabera, euskaldunen per capita errenta Europako batez besteko errentaren % 141koa da, alegia, ehuneko 5 puntu gehiago aurreko ekitaldiaren aldean.

Beste erkidegoetan gertatzen ez den bezala, Euskadin enplegua sortzen ari da oraindik ere, industria-sare osasuntsu eta lehiakorrari esker, higiezinaren sektorearen mende ez dagoen egitura ekonomiko eta dibertsifikatuari esker, eta enpresa txiki eta ertainen zorpetzea nahiko baxua izateari esker.

kundeek landutako “kudeaketa eraginkorrari”. Izan ere, bere ustetan, horri esker egon da aukera azpiegiturak “bizkortzeko” baliabideak eskuratzeko eta, aldi berean, gizarte-solidaritateko politikak ugaritzeko, “hori baita gure lehentasuna” gogorazi zuten.

“Gauzak ondo doazenean aurrezte ezinbestekoa da, larrialdietan gastatzeko moduan egongo bagara” adierazi zuen Lehendakariak. Familiak jarri zituen adibide, akordioan jasotako inbertsioak nola finantzatuko diren azaltzeko. “Ohiko diru-bilketaz gain, aurrezki guztiak aterako ditugu eta zorpetu ere egingo gara”, zehaztu zuen.

Eta hori guztia “egonkortasun-bermea” emateko euskal gizarte-ari eta “konfiantza” sektore ekonomikoari “eta munduari”, “herrialde serioa garelako” azpimarratu zuen Lehendakariak.

Zaragozako Expoa, Euskadiz blai

Ekainaren 29an Euskadik hilabeteotan Zaragozan ospatzen ari diren Erakusketa Unibertsala blai egin da utzi zuen, ura baita gai nagusia. Egun horretan Euskadiren eguna zuten, eta hori dela eta, euskal erakundeen ordezkariak zabal bat han izan zen, Lehendakaria buru zutela, gobernuak antolatutako hainbat ekintzatan parte hartzeko.



Ebro ibaian hasi zen eguna, traineruen estropadekin bat. Lehenengo aldiz jokatu ziren estropadak Kantauri Itsasoaz besteko lekuren batean, eta estropada haietako batzuk ACTrako puntuagarri izan ziren. Izugarritzko arrakasta izan zuten estropadek, eta ikusle mordoak bildu zen, asko eta asko Euskaditik joanda, ekitaldi berezia ikustera.

Kirol-lehia amaitu ondoren, Euskadi Pabilioian izan ziren gainerako ekintzak. Pabilioian, Expo guztian bezalaxe, ura da elementu protagonista. Sabaitik behera metakrilatozko 10.000 tutu fin fin daude zintzilikatuta, zirimiriaren

paretetako egurrean Euskal Herriko zenbait ibai daude grabatuta eta, bertan jarritako behatxuloen bitartez, bisitariak aukera dauka Euskadiko geografiako paisaia esanguratsuenak aukeratu eta ikusteko.

Ura izan zen, halaber, Ibarretxe Lehendakariak emandako hitzaldiaren hari nagusia; Joxe Antonio Artzeren "Iturri zaharretik edaten dut. Ur berria edaten, beti berri den ura betiko iturri zaharretik" bertso zaharrak erabili zituen, adierazteko, "euskal herri zaharra gazte dela oraindik, egunero ur berria edaten dugulako iturri zaharretik".

efektua egiteko, eta zortzi aterki ere badaude, Euskadiko baliabide naturalak erakusteko modu eta aitzaki.

Gainera, pabilioiko

Amaiera ezin hobea izan zuten Euskadiko Egunak, Ainhoa Arteta sopranoak Zaragozako Auditorioan emandako kontzertuak primeran biribildu baitzuen ospakizuna. Bilboko Orkestra Sinfonikoak lagunduta, Antón García Abrilen "Canciones de Valldemosa" kantak abestu zituen, Antonio Gala idazlearen testuez apainduta. Donostiako Orfeoia ere bat egin zuten kontzertuarekin: Guridiren "Cuadros Vascos" interpretatu zuten.

Ez da Nabarra Boua

Nabarra Boua izan zitekeen, baina urpekariaren taldeek udaberrian aurrera eramandako ikerketek erakutsi dutenez, Matxitxako lurmuturrean aurkitutako hondakinak ez dira itsasontzi mitiko horrenak; boua Euskadiko Gudalostearena izan zen, eta frankisten Canarias gurutze-ontziak hondoratu zuten, eskifaiaren kideetako batzuk ontzian zirela, 1937. urtean (Noticias de Euskadiren 110. alea ikusi).

Oraindik ez dago jakiterik zein den aurkitutako ontzia, baina badakigu burdina-mea garraiatzeko zela, eta neurria, berriz, Nabarra bouaren oso antzekoa zuela. Dena den, brankako gaztelua bou mitikoarena baino 5 metro laburragoa da. Orain, ontzi hori zein den ikertu beharra dago, inongo erregistrotan ez baita ageri inguru horretan ezaugarri horiek zituen itsasontzirik urperatu zenik.

Euskarak gero eta hiztun gehiago ditu

16 urtetik gorako biztanleen artean gero eta gehiago dira euskaraz dakitenak, hain zuzen ere 1991. urtearekin alderatuta 137.200 hiztun gehiago baitaude, zehazki. Datu horiek Eusko Jaurlaritzak egindako azken inkesta soziolinguistikoan jasotakoak dira, eta erakusten duenez, azken hamarkadetan Euskal Autonomia Erkidegoan nabarmen egin du gora euskaraz jakin eta euskaraz hitz egiten dutenen kopuruak. Elebidunen gorakada hori Nafarroan ere gertatu da, batez ere gazteen artean, baina Nafarroan hazkunderen eritimoa EAEn baino apalagoa da. Iparraldean, berriz, euskara hiztunak galtzen ari da, baina galtzearen eritimoa apaldu egin da eta itxaropena izateko zantzu batzuk ere ageri dira.

Inkesta bost urtean behin egiten da, laginen bidez, eta helburu nagusia Euskal Herriko egoera soziolinguistikoak aztertzea izaten da; horretarako, hizkuntza-gaitasuna eta hizkuntzaren erabilera aztertzen dira, eta baita hizkuntzaren erabilera sustatzearen aldeko jarrerak ere.